

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON !



Familia agurgarriak,

Abenduaren 22an, ostiralean, eskolako azken eguna izango da eta Gabonetako oporrei hasiera emanez, goizeko ordutegia izango dugu. Etxera joango diren ikasleek **13:00etan amaituko dute**, Jantokian gelditzen direnen bila, **14:45-14:55** tartean, etorri beharko duzue.

Hona hemen egun horretako egitaraua: Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, hamaiketakoa, jokoak eta gabon kantikak.

OHARRAK:

- **Ostiralean**, hilaren **22an**, **12:15etan** abesti saioa izango dugu. Emanaldia bukatzen denean, ikasleak ikasgeletara joango dira.

Gabon kantikak Haur Hezkuntzako patioan egingo ditugu 12:15etan.
FAMILIA GUZTIAK GONBIDATURIK ZAUDETE !

- Abesten dugun bitartean, ez oztopatu ikaslegoa eta isilean egon.
- Egun honetan ikasleak "**baserritar**" jantzita etor daitezke. Haur Hezkuntzako umeak abarkarik gabe eta arropa guztia markatuta (txapela, zapia,...)
- **Jantokia**: Bazkaltzeko, etxera eramateko asmoa baduzue, goizean, tutoreari esan.
- **Garraioa**: Abenduaren 22an, garraioa 15:00etan abiatuko da eskolatik.
- **Urtarrilaren 8an, astelehenean**, klaseko lehenengo eguna izango da.